



REAL SOCIEDAD DE FUTBOL, SAD

MARKETIN ETA KOMUNIKAZIO JARDUERAK

“Tratamenduaren arduraduna”	REAL SOCIEDAD DE FUTBOL, SAD
“Helburua”	<p>Klubaren Marketin eta Komunikazio Departamentuak antolatutako jardueretan (Clinics, lehiaketak, zozketak, omenaldiak eta ekintza pribatu zein publikoetarako gonbidapenak, RS produktuak iragartzeko argazkien saioak, REALAk berak egindako bideoak, audioak edo iragarkiak, eta antzeko izaera duten jarduerak) parte hartzen duten pertsonen antolaketa eta logistika kudeatzea.</p> <p>Marketin eta Komunikazio Departamentuak antolatutako jarduerak sustatzeko ekintzak egitea REAL SOCIEDAD DE FUTBOL, SADen komunikazio-kanal ofizialeetan (irudiak edota bideoak).</p>
“Legitimazioa”	Interesdunaren baimena
“Hartzaileak”	Datuak ez zaizkie hirugarrenei lagako, jarduera kudeatzeko eta sustatzeko ez bada, behintzat, eta REAL SOCIEDAD FUNDAZIOAri ere ez.
“Eskubidea”:	Datuetan sartu, zuzendu, ezabatu, mugatu, aurkatu eta eramatea, eta “Datuen babeserako informazio gehigarria” atalean azaltzen diren beste eskubide batzuk.
“Jatorria”	Interesdunak berak emandakoak dira datuak.
“Informazio gehigarria”	“Datuen babeserako Informazio Gehigarria” izeneko dokumentuan kontsultatu dezakezu informazio gehigarria eta zehatza.



“Datuen babeserako Informazio Gehigarria”

Zein da zure datuen tratamenduaren arduraduna?

Jakinazten dizugu zuk eman dituzun datu pertsonalak REAL SOCIEDAD DE FUTBOL, SADen erantzukizunpean tratatzen direla, sozietatearen helbidea Anoeta pasealekua, 1, 20014 Donostia/San Sebastian, (Gipuzkoa). Gurekin harremanetan jartzeko, posta elektronikoko helbide honetara idatzi dezakezu: pdcp@realsociedad.eus

Zein xedekin tratatzen ditugu zure datu pertsonalak?

Jasotako datuen helburua da REALaren Marketin eta Komunikazio Departamentuak egiten dituen jarduerak kudeatzea, hala nola omenaldiak, lehiaketak, zozketak, ekintza pribatuetarako gonbidapenak, RS produktuen salmenta sustatzeko erabiliko diren argazkiak egiteko saioak, eta antzeko izaera duen beste edozein jarduerak, bai eta sustapen jarduerak egitea ere, hala nola kasuan kasuko jarduerak osorik edo partzialki grabatzea edo REALAK edo FUNDAZIOAK baimendutako hirugarren batzuek ateratako argazkiekin edo grabatutako bideoekin edo antzeko beste biderekin grabatutako material audio-bideografikoak. Grabazio horiek erabiliz beren jarduerak edozein bideren bidez zabaltzeko ere erabiliko dira datuak, bereziki REAL SOCIEDAD DE FUTBOL, SADen webgunea eta sare sozialak erabiliz, eta egutegietan, posterretan, txostenetan, memorietan, liburuetan, argazkietan eta CLUBen komunikazio-kanal ofizialeetan ere erabiltzeko.

Noiz arte gordeko ditugu zure datuak?

Zure datuak tratatu eta gordeko dira, betiere atxikitzen eta onartzen dituzun jarduerak egiteko beharrezkoak badira. Lege aplikagarriaren betekizunak betetzeko ere gordeko dira zure datuak. Zure datuen tratamendua beharrezkoa ez denean, ezabatu edota blokeatu egingo ditugu, datuak atxikitzeko eta deuseztatzeko dugun politikaren arabera eta indarreko araudiak legezko preskripzio epeen arabera.

Zein da zure datuak erabiltzeko legitimazioa?

Zuk zeuk berariaz emandako baimena da zure datuen tratamendurako legezko oinarria. Parte hartzen duzuneko jardueraren baldintzak onartuz emango duzu baimen hori.

Dena dela, jarduerako partaidetza kudeatzeko baimena ukatzeak edo kentzeak jardueran parte hartzeko ezintasuna ekarriko du. Sustapen jardueretan (REAL SOCIEDADen plataforma digitaletako argazkiak edo bideoak) parte hartu nahi ez baduzu, berariaz jakinarazi harremanetarako emandako kanaletan.

Zein da zure datuen jatorria?

Zuk parte hartzen duzuneko jardueren antolaketaren barruan tratatutako datuak parte hartzaileak berak parte hartzailearen izaera formalizatzean berariaz emandakoak izango dira.



Zer hartzailek jasoko ditu zure datuak?

Zuk parte hartzen duzuneko jardueren barruan bildutako datu pertsonalak kasuan kasuko jardueren antolamendurako, funtzionamendurako eta sustapenerako beharrezkoa diren REAL SOCIEDAD DE FUTBOL, SADeko langileek kudeatuko dituzte. REAL SOCIEDAD FUNDAZIOARI ere jakinaraziko zaizkio, aipatutako sustapen jakinarazpenak egiteko, hala badagokie.

Hauetako datuen hartzaileak diren beste hirugarren batzuk, REAL SOCIEDAD DE FÚTBOLI zerbitzua eskaintzen diotenak edo tratamenduaren baterako erantzuleak direnak:

- Microsoft; "lainoan konputatzea" zerbitzuetarako; EBaren barnean eta kontratuetan ezarritako pribatutasun bermeari lotutako CRM, ERP eta Business Intelligence delakoak barne.
- DIMENSION MARKETING, SAU; material komertziala eta sustapen kanpainetarako materiala ekoizteko eta garatzeko (material bideografikoa, ikus-entzunezkoak, material fisikoa eta beste edozein eratakoa).
- Hainbat sare sozial; esaterako, Facebook, Google +, etab. Datu horien EBtik kanpoko tratamendua, gehienetan, EU-US Privacy Shield (informazioa hemen: <https://www.privacyshield.gov/welcome>) hitzarmenaren babesari edo interesdunaren baimen zehatzari lotutako berme egokien menpe egiten da.

Zein dira zure eskubideak datuak ematean?

Edonork du REAL SOCIEDAD DE FUTBOL, SADek berari dagozkion datu pertsonalak erabiltzen dituen edo ez jakiteko eskubidea.

Interesa duten pertsonak eskubidea dute euren datu pertsonaletara sartzeko, zehatzak ez diren datuak zuzentzeko eskatzeko, edo, besteak beste, datuak dagoeneko beharrezkoak ez badira bildu ziren helburuetarako, datu horiek ezabatzeke eskatzeko.

Hona hemen REAL SOCIEDAD DE FUTBOL, SADek harremanetarako bide hauek jartzen ditu zure esku zure eskubideak gauzatzeko:

- Mezu elektronikoa: pdcp@realsociedad.eus
- Posta bidez edo REAL SOCIEDAD DE FUTBOL, SADen bulegoetara gerturatuz: Anoeta pasealekua, 1, 20014 Donostia/San Sebastian (Gipuzkoa).

Eskubideez baliatzeko, beharrezkoa izango da beti interesduna identifikatzea NANaren edo antzeko dokumentu baten bitartez.

Zuk REAL SOCIEDAD DE FUTBOL, SAD entitateari emandako datuen kopia elektronikoa jaso nahi izanez gero, Entitateak datuak formatu normalizatuan biltzen dituen artxibo atxikia posta elektronikora bidaltzeko aukera dago.

REAL SOCIEDAD DE FUTBOL, SADek ahal duen guztia egingo du zure datuak eguneratuta egon daitezen. Halere, datuen zehaztasunari buruzko erantzukizuna interesdunaren esku dago; hori dela eta, datuetan aldaketarik baldin badago, mesedez jarri gurekin harremanetan ezarritako komunikazio bideen bitartez, aldaketa egiteko.



Era berean, interesdunak bere datuak hirugarrenei jakinarazteko bere datuak erabiltzea nahiz informazio edo publizitatea jasotzea edo erabakien euskarrirako sistema automatizatuetan bere datuak erabiltzea debeka dezake, ezarritako bideak erabiliz, kasu konkretua eta oztopoak zehazten dituen eskaera eginez.

Jakinazpen elektronikoen kasuan, mezuaren gorputzean bertan bide elektroniko honetara informazioa eta publizitatea bidaltzeari berariaz ezetz esateko bideak jarriko dira prest.

Zure eskubideen inguruko informazio gehiago jaso nahi baduzu edo dagokion autoritateari erreklamaziorik aurkeztu nahi badiozu, Datuak Babesteko Espainiako Bulegoaren (AEPD) webgunean kontsultatu dezakezu, hemen: <http://www.agpd.es/portalwebAGPD/CanalDelCiudadano/derechos/index-ides-idphp.php>.

Datu pertsonalak babesteko segurtasun neurriak

REAL SOCIEDAD DE FUTBOL, SADek datuen erabileraren eta horiek pertsonen eskubideetan duten eraginaren arrisku mailari dagozkion eta beharrezkoak diren eta ezarri beharreko legediak uneoro eskatzen dituen eta eska ditzakeen neurri tekniko eta antolaketarako neurriak hartu ditu, datu pertsonalen tratamenduaren segurtasuna bermatzeko.

Hala ere, erabiltzaileak jakin behar du gaur egungo Interneteko segurtasun neurriak ez direla gaindiezinak eta, ondorioz, ez dagoela legez kanpoko eta bidegabeko esku hartzeetatik salbu. Esku hartze horiek ez dira REAL SOCIEDAD DE FUTBOL, SADen ardurakoak; izan ere, entitateak Legeak zehaztu bezala jokatu du datuen babeserako jardunean.